

Faxismo berriak

Antton
Izagirre

Batek baino gehiagok harrituraz harlezake egun

Europar ezarri eta orokortu den sistema politiko-ekonomikoa faxistatzat jotzea. Egia da kontzeptuaren zentzu hertsian ez ginatekeela zuzentasun osoz arituko, baina pentsamendu totalitarioen ezarpenaz ari bagara, ez gara iragan mendeko eredu zaharkituaz ari, herriak eta gizakia menperatzeko garatu den sistema ekonomikoko finantzario berriaz baizik.

Eredu polizial eta militarrek menderatutako eredu faxista haietatik botere ekonomikoa eta finantzariak ezarri duten aginte eredura, badago alderik, baina funtsean gizarte oso baten pentsamoldea eta jokamoldea kontrolatzeko eta elite politiko ekonomikoa helburuetara makurrarazteko neurriko sistema eraiki dute.

Mendebaldeko Europar XXI. mendean gailendu den eredu ekonomikoko finantzarioak kontrolpean hartu du botere politikoa, sakoneko aldaketarako ia aukerarik gabe uzteraino desitxuratu du; klase ertainari eta langileriarri ezarri zaizkien mugak erreakzionatzeko aukerarik gabe uzteraino desaktibatu dituzte. Sistema horrek gure gizartean ezarri duen eredu geratzeko etorri dela dirudi.

Bitartean, gizarte aldaketa guztietan aktiboenak izan ohi diren sektoreak, langile mugimenduak, ikasle mugimenduak edota intelektualak, ez dira sistemari oldartzeko kemenik erakusten ari. Indarrak aldaketara bideratu ordez, sistemara egokitzera behartuta daude. Langabezia, zabor kontratuak, miseriazko soldadak, etxegabetzeak, pobrezia eta kariatatea hedatzen ari diren neurri berean, aberastasuna esku gutxiagotan ari da pilatzen. Egoera horretan 68ko maiatzeko espiritua aipatzeak zer beharko ote luke izan, nostalgia hutsa ala aldarrikapena? •



Espetxean eduki zuten beste aldi batean bere aldeko diru bilketa egin zen sarean, eta berak Errusiako antifaxistek zuzendutako eskutitzak idatziz erantzun zuen. Mugimenduko webgunetan berehala zabaldu zituzten idatziak, faxisten aurkakoek baliabide ugari baitituzte sarean. Bertan hedatzen dituzte homofobiaren, arrazakeriaren eta totalitarismoaren aurkako mezuak. Talde horietako askok lotura ideologikoa dute Mendebaldeko Sharp eta Rash bezalako taldeekin. Horiek bezala, errusiarrek ere punk musika, fanzineak, pelikulak eta beste gauza asko egiten dituzte, ia beti antifaxisten kontuekin lotutakoak.

Errusiako hedabideetan lanean neonazi batzuk ari direla esateko arrazoiak ere badituzte antifaxistek. Sokratesen aurkako azken zigorra oinarritu zuten Ridus sareko berri agentziak banatutako irudi batzuetan. Epai-keta apirilean hasi zen arte ez ziren ezagutzera eman argazki horiek eta hori susmagarria da ezkertiarrentzat. Uste dute Ridus eta agintariak elkarlanean aritu direla, Sokrates espetxera sartzeko. Gainera, gogorazten dute Andrei Gulutin Ridus webguneko editoreak lotura zuzena duela eskuin muturrarekin. Joe- ra politiko horretako Gangs of Moscow eta Right Hook taldeetako bateria-jotzailea izan zen

Gulutin, eta Russian Way taldearekin ere oso harreman zuzena izan zuen. Azken talde horretako buruak Born talde neonaziatzako sortuko zuen gerora.

Musikarien aurkako jazarpena ez da berria Errusian. Esaterako, Mendebaldeko heavy metal taldeen musika zentsuratu egiten zen Sobietar Batasunean, garaiko agintariak neonaziak izatea leporatzen baitzieten. Ironiaz batzuek lotu zituzten Kiss taldearen bi «s» horiek naziekin.

EZEROSOA ATZERRITARRENTZAT

Orduko ezjakintasuna atzean geratu da. Pussy Riot taldeko nesken kartzelaratzeko munduari jakinarazi zion Putinen erregimenaren aurkako taldeak egon badaudela Errusian eta oso garesti ordaintzen dutela beren ausardia. Antifaxistek gogorazten dute beste ekintzaile as-

ko ere espetxera sartu izan ditzutela. Nabarmentzen dituzte Aleksandr Kolchenko Krimeako manifestariaren eta Aleksei Olešinov ikaslearen kasuak. Gainera, ezkerreko punk taldeen kontzertuak Errusiako Poliziaren mehatxupean egoten dira beti.

Atzerriko punk taldeek esaten dute ezinezkoa dela Errusian kontzertu bat egitea, segurtasun zerbitzu egokia kontratatu gabe, oso ohikoak baitira eskuin muturrekoen eta antifaxisten arteko borroak, tragikoak kasu batzuetan. Indarkeria erabiltzeko joera leporatzen diete herritarrek, faxistek zein antifaxistek, eta horrexek eragiten du punk musikak oso jarraitzaile gutxi izatea Errusian. Pussy Riot da talderik ezagunena eta berak ere zazpi abesti baino ez ditu aurkeztu, eta oso entzule gutxi- ren aurrean, gainera.

Apelazioa aurkeztu zuten epaileen erabakiaren aurka, baina ez zieten onartu beranduegi aurkeztu omen zutelako. Abokatuek salatu dute Gobernuak epeak propio aldatu zituela.

Atzerriko punk taldeek esaten dute ezinezkoa dela Errusian kontzertu bat egitea segurtasun zerbitzua kontratatu gabe, oso ohikoak baitira batzuen eta besteen arteko borroak.